

## CAJA LABORAL POPULARREN COOP. DE CRÉDITOREN ORDAINSARI-POLITIKAK JASANGARRITASUN-ARRISKUEN INTEGRAZIOAREKIN DUEN KOHERENTZIARI BURUZKO INFORMAZIOA

2021eko otsaila

“Finantza-merkatuetako parte-hartzaitzat” edo “finantza-aholkularizat” hartzen diren entitateek informazioa eman behar dute, euren ordainsari politikarekin batera, politika horrek jasangarritasun-arriskuen integrazioarekin duen koherentziari buruz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko 2019/2088/EB Araudiak, finantza-zerbitzuen sektoreko jasangarritasunaren inguruko informazioa emateari buruzkoak, agintzen duenez.

Ilido horretan, LABORAL Kutxa Taldearen Integrazio Politikaren arabera, honako entitate hauek hartzen dira “finantza-merkatuetako parte-hartzaitzat” edo “finantza-erakundetzat”:

- Caja Laboral Popular Coop. de Crédito “finantza-aholkularizat” hartzen da, “inbertsioen arloko aholkularitza-zerbitzua” ematen duelako.
- Caja Laboral Gestión SGIC SA “finantza-merkatuetako parte-hartzaitzat” hartzen da, inbertsio kolektiboko erakundearen gestorea delako.
- Caja Laboral Pensiones SA GFP ere “finantza-merkatuetako parte-hartzaitzat” hartzen da, pentsio-fondoaren gestorea delako.

Taldeari eta, beraz, ukitutako erakunde hauetako bakoitzari aplikagarri zaion ordainsari-politikak koherentzia du Integrazio Politikan eta hori garatzeko gainerako prozeduretan zehaztutako jasangarritasun-arriskuen integrazioarekin. Hala, honako hau da ordainsari-politika osatzen duten printzipioetako bat: finantza-arriskuak ez ezik, finantzaz kanpoko arriskuak ere aintzat hartzea (jasangarritasun-arriskua).

Jasangarritasun-arriskuen integrazioari buruzko informazio gehiago aurki dezakezu gure webgune korporatiboan argitaratutako arriskuen integrazio-politikan.